



ESKOLAGUNE

Ekoetxea Azpeitia

Hazi txiki, sustrai haundi

Lehen Hezkuntza (Lehenengo Zikloa)

ÁRLO/IKASGAIA: Natura, gizarte eta kultura ingurunearen ezagutza

Euria ekartzen dizuet behar duzuenean, klimaren oreka mantentzen dut, eta nire baliabideak erabiltzen dituzue zuen gaixotasunak sendatzeko. Hala ere, pixkanaka dena kentzen ari zarete: segundo bakoitzean zuhaitzak mozten dituzue, ibaiak kutsatzen dituzue eta suteekin lurra erretzen duzue. Gero eta ahulago nago, eta jada ezin zaituztet lehen bezala babestu. Zenbat eta gehiago suntsitu, orduan eta gutxiago izango dut zuei eskaintzeko: ur gutxiago, oxigeno gutxiago eta bizitza sendatzeko baliabide gutxiago. Ni hiltzen banaiz, zuek ere nirekin hondoratuko zarete. Baina nik beti berpizteko aukera izango dut: hazi txiki batetik berriro zuhaitz handi bihurtuko naiz. Eta zuek?